

1. Zbkia. / 2019ko  
ekaina

1869an  
Iortutako Ituna  
ospatuko dugu

Albert Solé-k  
zuzendutako  
“Federal”  
dokumentalaren  
emanaldia  
Donostian (hilak  
13), Iruñean  
(hilak 14) eta  
Eibarren (hilak  
21)

Ekainak 22,  
Eibarren

Espainiako  
federalismoaren  
iragana eta  
etorkizunari  
buruzko Mahai-  
ingurua



federalistak



## Eibarko Itun Federalistaren 150. urteurrena

Ekainaren 23an **Eibarko Itun Federalaren 150. urteurrena** ospatuko dugu, 1869ko Konstituzio Demokratikoaren inguruan Partido Republicano Federal delakoaren hainbat euskal eta nafar ordezkari sinatu zutena. Aurretiaz ituna Tortosan sinatua zen eta ondoren Cordoba, Valladolid eta Coruñan ere sinatu zen. Ekimen horiekin guztiekin askatasun demokratikoak eta lurralde autonomia-sistema bat ezartzea nahi zuten sinatzaileek, hau da, Espainiako jendearen eta lurraldeen dibertsitatea egokien jasoko zuen sistema federala. Uste baitzuten, zuzen uste ere, demokrazia eta lurraldeen autonomia erabat uztarturik zeudela.

# EIBARKO EKITALDIEN EGITARAUA

EKAINAK 21, OSTIRALA



## 19.00TAN PORTALEA-KULTUR ETXEAN

- **FEDERAL DOKUMENTALA ETA  
GAIAREN INGURUKO SOLASALDIA**

EKAINAK 22, LARUNBATA

## UDALEKO BILKURA OSOKO ARETOAN

- **11:00 TAN ESPAINIAKO  
FEDERALISMOAREN IRAGANA  
ETA ETORKIZUNARI BURUZKO  
MAHAI-INGURUA**
  - ANTONIO RIVERA BLANCO
  - ZULIMA PÉREZ SEGUÍ
  - PILAR PÉREZ-FUENTES HERNÁNDEZ
- **13:00 ATSEDENALDIA**
- **13:15 TAN SINATZAILEEI  
BURUZKO HITZALDIA**
  - ANTXON NARBAIZA AZKUE
- **14.00TAN ITUN FEDERALISTAREN  
INGURUKO EKITALDI  
INSTITUZIONALA**
  - EIBARKO ALKATEA
  - ELKARTE FEDERALISTEN ORDEZKARIAK

## UNZAGA PLAZA HOTELEAN

- **BAZKARI FEDERALA** (jakinarazi  
[euskalfederalistak@gmail.com](mailto:euskalfederalistak@gmail.com)  
webgunean)

# Eibarko Itun Federalaren 150. urteurrenaren ospakizuna

150 urteren ondoren, gogoratu baino gehiago nahi dugu, demokraziak, autogobernuak eta elkartasunak osatuko duten guneak eraikitzeak aukera izan behar du. Ideia berbera da duela zenbait hilabete eratu zen Euskal Herriko Federalistak Elkarteak bultzatzen duen [Adierazpen Federalistan](#) azaltzen dena. Adierazpenak 300 pertsonen sinadura bildu arren, agian ez ezagutzeagatik edo webgunean sartzeko zailtasunengatik, soilik 150 pertsona inguru batu gara Euskal Herriko Federalistak Elkartean oraindik. Elkarteko kide ez bazara (edo beste bati gonbidatu nahi baduzu), aukera ederra duzu oraintxe bertan. Martxan jarri dugun [www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus) webgunera (bertan agertzen da orain arte egindakoaren gutzia) jo eta aurkituko duzun **formularioa**

<https://federalistak.eus/index.php/kontaktuan>

betetzea besterik ez duzu. Zure konpromiso bakarra 25 euroko urteko kuota ordaintzea izango da (edo kuota murriztua zenbait egoeratan).

Arestian esan bezala, Euskal Herriko Federalistak Elkarteak Eibarko Itun Federalaren urteurrena ospatzeko asmoa dugu. Horretarako bi zatitan eraturako ondoko koadroan ikusi ahal den programa antolatu dugu bertako Udalarekin batera.

Ikusten duzunez, **gure asmoa ez da soilik iragana gogoratzea, aurrera begiratzea baizik**, beste tokitan egin diren esperientziak bilduz, non ikusten baita formula federala egokiena dela aniztasunarekiko begirunea eta jardun demokratiko on bat lotzeko orduan.

Zer esanik ez, ekitaldi horietara guztietara **gonbidatuta zaude**. Bazkarira joateko asmoa baduzu, jakinarazi egiguzu ekainaren 15a baino lehen ondorengo helbide elektronikora: [euskalfederalistak@gmail.com](mailto:euskalfederalistak@gmail.com). Menuaren (itxia eta kafea barne) zenbateko 33 eurokoa izango da eta jatetxean bertan ordainduko da. Horren guztiaren xehetasun gehiago nahi izanez gero jo [www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus) webgunera edo [@federalistak](#) twitter kontura.